

BALIO PROPOSAMENA

proiektuaren helburua garraiatzeko zailtasunak dituzten pertsonak laguntzea da, batez ere adinekoak. Askok ezin dute gidatu eta garraio publikoa erabiltzea zaila edo deserosoa da. Horregatik, irtenbide merke eta praktiko bat eskaintzen dugu: aplikazio bat, distantzia laburretarako, non pertsona batek bere autoa eskain dezake beste pertsona batzuk eramateko, edo bidai nahi dutenek beste baten autoa erabil dezaketen. Sistemak bidaiak koordinatzen ditu, leku berera doazen pertsonak elkartuz, eta horrela taxi edo garraio publikoaren antzeko zerbitzu bat eskaintzen dugu, baina merkeagoa eta pertsonalagoa.

Gure aplikazioak ez du bakarrik garraioa eskaintzen; pertsonen arteko harremanak ere sustatzen ditu. Bidaiak partekatzeak aukera ematen du aurretik ezagutzen ez ziren pertsonak ezagutzeko eta komunitate harremanak sortzeko. Zerbitzuaren kalitatea bermatzeko, auto eta gidari egokiak izatea zaintzen dugu eta garraio publikoarekin alderatuta bidaia erosoagoa eta pertsonalagoa eskaintzen dugu.

Agureak teknologia eta gailu berriekin zailtasunak dituzte, beraz adimen artifizialaren laguntzarekin aplikazioa erabiltzeko erraztasunak jarriko ditugu. Gure aplikazioa adimen artifizialeko laguntzaile bat izango du eta behar izatekotan ahotsarekin funtzionatzen duen adimen artifiziala ere. Era horretan teknologia berriekin zailtasunak dituztenak gure aplikazioa erabiltzeko ez dute arazorik izango.

Gure balio nagusiak bi motatakoak dira:

Kuantitatiboa: taxi edo garraio publikoarekin alderatuta prezio merkeagoa eskaintzen dugu.

Kualitatiboa: bidaia erosoak, gidari fidagarriak, horiek edukitzeko, bidaia bakoitza amaitzean inkesta bat egingo diegu gidariari eta bidaiariari, beren esperientziaren berri eman diezaguten eta pertsona baloratu dezaten. Ere auto egokiak bermatzen ditugu, eta pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditugu. Horrela, bidaia erosoak, segurua eta sozialki aberatsa bihurtzen da.

Arazoak ikusi dira joan etorrian, hau da, leku batera joaterakoan, nola bueltatu ahal dira? Horren arabera pentsatu dugu guk langileok gure autoa eskainiko dugula itzultzeko modurik ez badute, hau da, ez badago kotxerik beren etxera itzul daitezen dispoibleak egiteko, gurea eskainiko dugu eta prezioa berdina izango da.